

● ● ● 2024 ● ● ●

KIROLAREN EUSKAL BILTZARRA CONGRESO VASCO DEL DEPORTE

EUSKADIKO KIROLAREN ETA JARDUERA
FISIKOAREN VIII. BILTZARRA


VIII CONGRESO DE LA ACTIVIDAD
FÍSICA Y EL DEPORTE DE EUSKADI




Gizarte **BERRI** baten aurrean
Ante una **NUOVA** sociedad


2024
Urriak
24-25
Octubre




**Social
Antzokia
Basauri**
(Bizkaia)


Egitaraua jaitsi
Descarga
el programa


Izena eman
Inscríbete

Antolatzailea
Organizador
kait.

Erakunde babesleak
Entidades patrocinadoras
Kirol eskola
Kiroletik hasi eta ikasi

Bizkaia
Foru aldundia
diputación Foral



Erakunde laguntzaileak
Entidades colaboradoras
athlon



Kirola

Gizarte **BERRI** baten aurrean
Ante una **NUEVA** sociedad

2024 urte olinpikoarekin bat eginez, Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren VIII. Biltzarra izango da urriaren 24 eta 25ean Basaurin (Bizkaia). Kasu honetan, ez gara lehiatzera joango -200 herrialdek baino gehiagok egingo duten bezala hurrengo Joko Olinpikoetan-, baina bai Euskadin kirolaren kudeaketan dugun jakintza hobetzera. Horixe da, hain zuzen ere, Biltzarrak bilatzen duena, edizioz edizio: Euskadin kirola eta jarduera fisikoa elkarrekin bizi eta sustatzen duten eragileen komunitate osoaren topaketa da, ezagutza eta esperientzia aztertu, ezagutu eta partekatzeko helburuarekin. Aurtengo Biltzarraren ardatz nagusia honako hau da: Gizartearen aldaketen aurrean sektore gisa emango dugun erantzuna. Hori guztia, ikuspegi dinamikoa eta iritzi-trukea oinarri hartuta, adituen hitzaldi, mahai-inguru, poster eta workshopen bidez.

Coincidiendo con el año olímpico 2024, se celebra el VIII Congreso de la Actividad Física y el Deporte en Euskadi los días 24 y 25 de octubre en Basauri (Bizkaia). En este caso, no acudiremos a competir -como lo harán más de 200 países en los próximos Juegos Olímpicos- pero sí a incrementar nuestra competencia en la gestión del deporte en Euskadi. Esto es precisamente lo que persigue este Congreso, edición tras edición: se trata de un encuentro de toda la comunidad de agentes que conviven y promocionan el deporte y la actividad física en Euskadi con el objetivo de estudiar, conocer y compartir conocimiento y experiencia. El Congreso que presentamos tendrá como eje principal nuestra respuesta como sector ante los cambios de la sociedad. Todo ello, bajo un enfoque dinámico y de intercambio de opiniones, a través de ponencias, mesas debate, pósters y workshops con personas expertas en la materia.



I. Blokea · Bloque I

Nori? *Gizarteari*

Kirolaren kudeatzaile gisa, helburuetako bat da gizarte aktiboagoa lortzea. Horretarako, gure gizartean gertatzen ari diren aldaketak aztertu eta ezagutu behar dira. Bestela, jarduera fisikoa eta kirola sustatzeko politikak eragingo dituzten inpaktuak kasualitatez emango dira, kasurik onenean.

Biztanleriaren zahartzea da joera demografiko orokortu eta nagusia mundu osoan, jaiotza-tasaren beherakadaren eta bizitza-luzeraren gorakada dela eta. Pertsonak gehiago bizi dira eta seme-alaba gutxiago dituzte. Horren ondorioz, eta denbora aurrera egin ahala, biztanleriaren adinen araberako egitura aldatzen ari da eta ezinbestean baldintzatzen ditu kirol-jardueraren inguruko eskaerak.

Kirola sustatzeko edozein estrategia diseinatzerakoan uste dugu egokia dela kulturartekotasunari, migrazioari eta aniztasunari arretaz begiratzea, hori guztia genero-ikuspegian integraturik. Era berean, estrategia horrek ekitatearen eta aukera-berdintasunaren printzipioa errespetatuko du eta kirolean justizia soziala lortzea izango du helburu.

¿A quién? *A la sociedad*

Uno de los objetivos como gestores y gestoras del deporte, es conseguir una sociedad más activa, para ello, es preciso examinar y conocer los cambios que se están produciendo en la sociedad a la que nos dirigimos, de lo contrario, los impactos positivos que provocarán las políticas de promoción de la actividad física y el deporte llegarán de casualidad, en el mejor de los casos.

El envejecimiento de la población es la tendencia demográfica más generalizada y dominante a nivel mundial, consecuencia de la caída de la natalidad y el aumento de la longevidad. Las personas viven más y tienen menos hijos e hijas, esto hace que la estructura por edades de la población esté cambiando con el paso del tiempo y condicione de manera inevitable las demandas en cuanto a la práctica deportiva.

Creemos que atender a la interculturalidad, la migración y la diversidad, todo ello desde una perspectiva de género integrada, es necesario a la hora de diseñar cualquier estrategia de promoción de la práctica deportiva. Así mismo, dicha estrategia respetará el principio de equidad e igualdad de oportunidades, y aspirará a alcanzar la justicia social en el deporte, y a través del mismo.



II. Blokea · Bloque II

Nola? *Eredua* ¿Cómo? *Modelo*

Gizartea aldatzen den heinean, hausnartu behar dugu ea egiten dugunak erabilgarria eta egokia izaten jarraitzen duen edo eboluzionatu eta datozen garaietara egokitu behar duen. Bigarren bloke honetan zalantzan jarriko dugu gaur egungo udal-zerbitzuaren ereduak zer bilakaera izan beharko lukeen, kirola unibertsala izan dadin eta, beraz, egungo gizartearen ongizateari ez ezik, etorkizunekoari ere lagun diezaion.

En la medida en que la sociedad cambia, debemos reflexionar sobre si lo que hacemos sigue siendo útil y pertinente o también tiene que evolucionar y adaptarse a los tiempos venideros. Dedicaremos este segundo bloque a cuestionar cómo debería evolucionar el modelo de servicio municipal actual para cumplir con su finalidad original de hacer que el deporte sea universal y contribuya, por tanto, al bienestar de la sociedad no solo presente sino también futura.

III. Blokea · Bloque III



Non? *Guneak* ¿Dónde? *Espacios*

Azken multzoan etorkizunean kirol-instalazioek nolakoak izan behar duten eztabaidatuko dugu. Era berean, herrietako eta hirietako kaleak eta plazak kirola egitera gonbidatzen duten eta espazio publiko libre eta partekatuan batera egotea errazten duten espazio bihurtzeko gakoak identifikatzen saiatuko gara.

En este último bloque debatiremos sobre cómo deben ser las instalaciones deportivas en el futuro. Asimismo, trataremos de identificar cuáles son las claves para convertir las calles y plazas de los pueblos y las ciudades en espacios que inviten a la práctica deportiva y faciliten su coexistencia en el espacio público libre y compartido.



URRIAK 24 OCTUBRE 2024

		JARDUERA · ACTIVIDAD	HIZLARIA · PONENTE
8:00	Sala	 Workshop: Jarduera fisikoaren orientazio zerbitzuak / Servicios de orientación de actividad física	Athlon
8:30	Hall	Harrera Recepción	
9:15	Sala	Aurkezpena Presentación	KAIT - Basauriko Udala / Ayuntamiento de Basauri - Bizkaiko Foru Aldundia / Diputación Foral de Bizkaia - Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco
9:30		Hitzaldi markoa: Biharko euskal gizartea / Ponencia marco: La sociedad vasca del mañana	José Luis Larrea (Deusto Social Lab)
10:30	Hall	Coffee Break	Posters. Aurkezpenak Presentaciones
I. BLOKEA · I BLOQUE		NORI? ERRONKA DEMOGRAFIKOA: BELAUNLDI-DIBERTSITATEA, DIBERTSITATE FUNTZIONALA · ¿A QUIÉN? RETO DEMOGRÁFICO: INVERSIÓN GENERACIONAL, DIVERSIDAD FUNCIONAL	
11:00	Sala	Hitzaldia: Euskadiko kirol-praktika fisikoa sustatzeko politikak, politika erreaktiboak edo proaktiboak gizarte EkitaKtibo bat eraikitzeko erronkaren aurrean? / Charla: Las políticas de promoción de la práctica físico-deportiva de Euskadi, ¿políticas reactivas o proactivas frente al reto de construir una sociedad EquitActiva?	Juan Aldaz (UPV-EHU)
11:30	Sala	Mahai-ingurua: Migrazioa, dibertsitate funtzionala eta belaunaldi-dibertsitatea / Mesa redonda: Migración, diversidad funcional y diversidad generacional	<i>Pilar Kaltzada (Moderatzailea / Moderadora)</i> José Luis Larrea (Deusto Social Lab) Juan Aldaz (UPV-EHU) Blanca Ordoñez (Haszten) Ekain Larrinaga (Bilboko Udala-Ayuntamiento de Bilbao)
13:00	Hall	Lunch Break	Posters. Aurkezpenak Presentaciones
II. BLOKEA · II BLOQUE		NOLA? UDAL KIROL ZERBITZUA 2030 · ¿CÓMO? SERVICIO DEPORTIVO MUNICIPAL 2030	
15:00	Sala	Hitzaldia: Kirol-ohituren joerak / Charla: Tendencias de los hábitos deportivos	Marian Ispizua (UPV-EHU)
15:30	Sala	Mahai-ingurua: Egungo eta etorkizuneko kirol-ohiturak; Ase beharreko eskaria: Zer eta nola egingo dugu?; Publikoaren eta pribatuaren arteko harremana; Udal Kirol Zerbitzuak. Zer formula?; UKZen egitura-eredua / Mesa redonda: Hábitos deportivos actuales y futuros; Demanda a satisfacer: ¿Qué y cómo lo vamos a hacer?; Relación entre lo público y lo privado; Servicios Deportivos Municipales. ¿Qué fórmula?; Modelo de estructura del SDM	<i>Josune Gorospe (Bizkaiko Foru Aldundia. Moderatzailea / Diputación Foral de Bizkaia. Moderadora)</i> Juan Antonio Compañón 'Konpa' (Gasteizko Udala - Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz) Iratxe Ruesgas (Sport Studio) Fernando París (FAGDE) Manuel Abajo (Barakaldo Kirolak)
17:00	Sala	 Workshop: Nola hobetu dezakegu adingabearen babesa kirol-inguruneetan? / ¿Cómo debemos y podemos mejorar la protección del menor en entornos deportivos?	Kunina - Zain



URRIAK 25 OCTUBRE 2024

		JARDUERA · ACTIVIDAD	HIZLARIA · PONENTE
III. BLOKEA · BLOQUE III		NON? KIROLGUNEAK · ¿DÓNDE? ESPACIOS DEPORTIVOS	
8:00	Sala	📄 Workshop: LED teknologiaren demokratizazioa / Democratización de la tecnología led	Mondo
9:00	Sala	Hitzaldia: Etokizuneko kiroldegiak / Charla: Los polideportivos del futuro	Jorge Yelamos (GO fit)
9:30		Hitzaldia: Hiri aktiboak / Charla: Ciudades activas	Sergio Serna (TECH friendly)
10:00		Mahai-ingurua: Kirolguneak, kiroldegietatik kale, plaza, herri eta hirietara / Mesa redonda: Espacios deportivos, desde los polideportivos hasta las calles, plazas, pueblos y ciudades	Juanma Murua (Moderatzailea / Moderador) Maite Morteruel (UPNA) Jorge Yelamos (GO fit) Karitte Alegria (Getxo Kirolak) Sergio Serna (TECH friendly)
11:30	Hall	Coffee Break	Posters. Aurkezpenak Presentaciones
12:00	Sala	Kirolaren Europako Hiriak: Ondarea / Ciudades Europeas del Deporte: el Legado	Luis Solar (OTSp)
		Hitzaldia: Basauri, Kirolaren Europako Hiria 2024 / Charla: Basauri, Ciudad Europea del Deporte 2024	Jon Zugazagoitia (Basauriko Udala - Ayuntamiento de Basauri)
		Mahai-ingurua: Kirolaren Europako Hiriak / Mesa redonda: Ciudades Europeas del Deporte	
13:00	Sala	Amaierako hitzaldia: Biltzarraren laburpena eta ikuspegi kritikoa / Ponencia de cierre: Resumen y visión crítica del Congreso	Raúl Martínez de Santos (UPV-EHU)





Gizarte **BERRI** baten aurrean
Ante una **NUOVA** sociedad



IZENA EMAN
INSCRÍBETE



Kirolaren euskal biltzarra

Congreso vasco del deporte

EUSKADIKO KIROLAREN ETA
JARDUERA FISIKOAREN BILTZARRA

CONGRESO DE LA ACTIVIDAD
FÍSICA Y EL DEPORTE DE EUSKADI

 **2024** | **Urriak**
Octubre | **24-25**

 **Social Antzokia**
Basauri (Bizkaia)

 **Egitaraua jaitsi**
Descarga el programa

Antolatzailea
Organizador



Erakunde babesleak
Entidades patrocinadoras



Erakunde laguntzaileak
Entidades colaboradoras

